

GAU-ESKOLA: “Erderiak ez ittotzeko”

1956an, Pako Juaristi zenak lortutako baimen bati esker, Euskaltzaindiaren Academia de la Lengua Vasca izeneko helduen Gau-eskola jarri zen martxan Elgoibarren. 80 lagun inguru hasi ziren euskalduntzen eta alfabetatzen, hilean 5 pezetako kuota ordainduz.

Don Jose Juaristi eta Don Jose Antonio San Pedro apaiz euskaltzaleak izan ziren estreinako bi irakasleak. Ez zuten txikitarik ere kobratzen, eta, euskara erakusteko Umandiren “Gramatica Vasca” liburua baino ez zuten.

Baina 1958an, gau-eskolako ateak itxi egin ziren ikasle falta zela-eta.

1964an, Felix Etxeberria 15-20 urte bitarteko gazteekin hasi zen elkartzen. Haren esanetan, “*eskolak baino gehixao billerak izaten zian. Zeruko Argia eta Anaitasuna aldizkarixak hartu eta artikululu onentsuenen komentari-xuak egitten genittun*”.

1966an, berriz, Elgoibarko Izarrak helduen euskalduntze-alfabetatzeari ekin zion. Felix Etxeberria zen irakaslea, eta Marisabel Mujika, Maite Ajuria, Marisabel Arakistain eta Mariasun Uriarte izaten zituen aldamenean laguntzeko.

Oso kondizio edo baldintza txarretan ematen zituzten eskolak. Ez zuten ez metodologiarik, ez eta gela egokirik ere. Ikasleek ez zuten ordaintzen euskara ikasteagatik, eta irakasleek ere ez zuten kobratzen. Felix Etxeberriaren esanetan, “*euskerian egoeriagatik kezkatuta geundelako ematen genittun klasiak, erderiak ez ittotzeko*”.

75ean Franco hil ondoren, asko aldatu zen gau-eskolako egoera. 70eko hamarkadan, ikastolako maisu-maistrak hasi ziren gau-eskolako klaseak ematen. Gau-Eskola profesionalen eskuetara pasa zen politikopoliki. Orduko paperetan ikusi dugunez, hilean 1.000 peze-ta kobratzen zuten euskarako eskolak ematearen truke.

76tik 82ra bitartean, berriz, gau-eskolak aldaketa nabarmenak izan zituen: 76an, gau-eskola parrokiako lokaletatik Ikastola berrira pasa zen, baldintzak asko hobetuz; bestetik, ikasle kopuruak izugarri egin zuen gora; ordutegiari dagokionez ere, eguerdietan eta goizetan ere hasi ziren eskolak ematen; eta, azkenik, euskara erakusteko metodologia ere asko hobetu zen.

Aldaketa hauen guztien eraginez, gau-eskolak desagertu eta euskaltegiak azalduko dira. 1982ko urriaren 27an egindako batzar batean, Elgoibarko Izarrak bere gau-eskola AEKren esku lagatzea erabaki zuen, gau-eskolako ikasle-irakasleen asanbladak hala eskatuta.

82ko azaroaren 11n, berriz, AEK euskaltegia zabaldu zen Elgoibarren, eta 1983ko irailean, Udalak HABEK bultzatutako Udal Euskaltegia jarri zuen martxan.

“Euskerian egoeriagatik
kezkatuta geundelako
ematen genittuan klasiak,
erderiak ez ittotzeko”.